



## **BIKAIN, EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRI PUBLIKO, OFIZIAL ETA DOAKOA AURKEZTU DA.**

### **Enpresen munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen etengabeko normalizazioa ebaluatu eta egiaztatuko du *BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiriak***

BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria gaur arratsaldean aurkeztu da Bilbon. Juan José Ibarretxe lehendakaria ekitaldiaren buru izan da, eta euskal enpresen esparruko eta erakunde publiko askotako ordezkariak parte hartu dute.

Euskararen Kalitate Ziurtagiri publiko, ofizial eta doakoa Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiak. EUDEL udalen elkarteak, CONFEBASK eta ADEGI, CEBEK eta SEA enpresari elkarteek, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta EUSKALIT kalitaterako euskal Fundazioak bultzatu dute eta alor sozioekonomikoan hizkuntza-normalkuntzako prozesuek izan duten garapen-maila egiaztatu eta aitortzea zuzenduko da. Euskararen erabilera bikaintasun bidean, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren gutxieneko maila egiaztatzen duten erakundeek lortu ahal izango dute horretarako zehaztutako ebaluazio sistemaren baldintzen baitan.

Aurkezpenean hitza hartu dute, lehendakariarekin batera: Miren Azkarate, Kultura sailburuak, Xabier Alkorta Euskaliteko presidentek eta Miguel Lazpiur, Confebask-eko presidentek. Eusko Jaurlaritza eta Euskalitekin batera, hiru foru aldundiak, Eudel, CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA, eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa aritu dira Euskararen Kalitate Ziurtagiria lantzen eta kudeatzen. Hauen guztien ordezkariak ere parte hartu dute ekitaldian.

Halaber aipamen berezia eta merezitako aitortpena egin zaie ebaluazio sistema testatzeko proiektu pilotoan parte hartu duten bederatzi enpresei. Horrela lehendakariak Bikain Ziurtagiriaren marka daraman egurrezko tailua eman die. Hauek dira enpresak: Eika, ELAY, Elkargi, Eroski, Euskaltel, CEGASA, Fundación Matia, Goiena, eta Makina Erremintaren Institutua

Bere mintzaldian Juan José Ibarretxe lehendakariak nabarmendu duenez, “eleanitza da euskal gizartearen oraina eta geroa, eta eleanitza da erakundeen, enpresen oraina eta geroa”. Gaineratu du testuinguru horretan, gaur egungo gizartean, “gero eta zailagoa” dela erakunde, enpresa eta saltokiek kalitatezko zerbitzua eskaintzea “euskara aintzat hartu gabe”. “Izan ere, gero eta jende gehiago dago lana euskaraz ere egiteko prestatua dagoena. Eta gero eta herritar gehiago baitira, gero eta bezero gehiago baitira euskara zaintzen eta erabiltzen duten enpresak positiboki baloratzen dituztenak”.

Ibarretxe jakitun agertu da aberastasun ekonomikoa sortzea dela enpresen helburu nagusia, “baina ez da bakarra”. “Helburu hori ez ezik enpresen helburua da, baita ere, gizartearen kohesioaren eta elkarbizitzaren alde lan egitea. Enpresek euskarari lekua eginez ekarpen handia egin ahal diote herri honetako hizkuntzen elkarbizitzari, gizarte honen elkarbizitzari”.



Alde horretatik, adierazi du euskara ezin dela zerbait “arrotza edo erantsia” izan enpresa baten baitan, “atzeko atzetik sartzen den zerbait”. Alderantziz, „berezko zerbait izan behar da, naturala, enpresari berari datzekiona. Horregatik normaltasunez eta naturaltasunez gehitu behar da, enpresaren parametroetan oinarrituta, alegia, ebaluagarriak diren kalitate eta berrikuntza parametroei jarraiki”.

Miren Azkarate Kultura sailburuak, bestalde, nabarmendu du Bikain ziurtagiri “publikoa, independentea eta doakoa” dela. Nolanahi ere, enpresek “irabazi” beharko duten ziurtagiri bat, hiru egiaztapen-maila zehazten dituen, euskararen presentziari, erabilerari eta kudeaketari dagokienez erakundeak egiaztatutako mailaren arabera: “oinarrizko mailako ziurtagiria, erdi-mailako ziurtagiria, eta goi-mailako ziurtagiria”.

70ko hamarkadan egin ziren lehen ahaleginak arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko, azaldu du Azkaratek, eta 90eko hamarkadaren lehen urteetatik aurrera, “bultzada kualitatiboa” gertatu zela lan-mundu pribatuan bide metodologiko sistematizatu “zehaztea” lortu zelako. “Gaur egun, eta hein handi batean 90eko hamarkadan hainbat enpresak egindako lanari esker badauzkagu egiten jakite bat, metatutako esperientzia, eta ohiko kudeaketa ereduaren arabera diseinaturiko bitarteko eta tresnak esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera normalizatzeko”. “Horregatik –Azkarateren ustez- garaia iritsi zaigu esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko egiten ari diren saioak eta plangintzak ebaluatzeko eta errekonozitzeko, era bateratu eta sistematizatuan”.

Bere iritziz, alabaina, “denak ez du balio; helbururik onenak bere balioa gal dezake hizkuntza kudeaketa desegoki baten eraginez: “enpresaren beste edozein arlo bezala, hizkuntzaren alderdia ere ebaluatu behar da, hobetzeko, aurrera egiteko, helburuak, ekintzak eta nahiak egokitzeko, azken finean, irabazteko. Eta hori da normaltasunez jokatzeara”

“Gaur egun, eskolan euskaldundu eta euskaraz ikasketak jaso dituen gazteak euskara gutxiko lan-mundura egin behar izaten du jauzi”. Eta hori “ekidin nahi dugun eta behar dugun zerbait” dela gaineratu du. “Eskolan euskaldundutakoa eta euskaraz formatu dena ez dezala lan-munduak erdaldundu”. Izan ere, esplikatu du Unibertsitatera doazen gazteen %52ak selektibitate-probak euskaraz egitea erabaki duela. “Horrek esan nahi du gure herria hemendik 15 urtera zuzenduko dutenak, gehienak behintzat, elebidunak izango direla. Ba, gazte hauei erakutsi behar diegu euskara hizkuntza erabilgarria dela bizitzako esparru guztietan”.

### **BIKAIN: *Ezin hobe euskaraz***

*BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren* helburua da Euskadiko esparru sozio ekonomikoko erakundeek garatutako hizkuntza-normalkuntzako prozesuek izan duten garapen-maila egiaztatu eta aitortzea.

Ziurtagiri hau lortu ahal zango dute euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren gutxieneko maila egiaztatzen duten erakundeek. Maila honek bat etorri behar du horretarako zehaztutako ebaluazio sistemaren baldintzekin. Ziurtagiria lortu nahi duten erakunde publiko nahiz pribatuek, Eusko Jaurlaritzak xede honetarako dohainik eskainiko duen ebaluazio zerbitzua eska dezakete.

**Prentsa oharra**

**Nota de Prensa**

2

**2007-12-17**



## Zertifikazio mailak

Ebaluazio sistemaren oinarritzko elementua Erreferentzia Marko Estandarra da. Ardatz hauek osatzen dute: Erakundearen Irudia eta Komunikazioa, Kanpo Harremanak, Barne Harremanak eta Hizkuntza-Kudeaketa Lehenengo hiru ardatzetan, erakunde bateko hizkuntza baten erabileraren eta presentziaren berri ematen duten osagaiak modu ordenatuan jasotzen dira; Laugarren ardatzean, berriz, entitate bakoitzean euskararen erabilera eta ezagutza ahalbidetu edota sustatzeko orduan eragina izan dezaketen erabaki zein estrategiak jasotzen dira.

Hiru egiaztapen-maila zehazten dira, euskararen presentziari, erabilerari eta kudeaketari dagokienez erakundeak egiaztatutako mailaren arabera: oinarritzko mailako ziurtagiria, erdi-mailako ziurtagiria, eta goi-mailako ziurtagiria. Ziurtagiriaren hiru mailak ebaluazioan aitortutako euskararen erabilera eta presentziaren neurrikoak izango dira, baita entitateak hartutako hizkuntza-irizpideen errotze- eta garapen-mailaren arabera ere.

Erreferentzia Marko Estandarraren lau ardatzetako bakoitzak berriazko pisu bat dauka, eta puntu guztien batuketa eginda, guztira mila puntuko kopurua ateratzen da. Dagokion ziurtagiria lortzeko, gutxieneko puntu-kopurua pilatu behar da, ebaluazio sisteman ezarritakoaren arabera.

## Ziurtagiriaren kudeaketa organoak

Ziurtagiri publiko hau kudeatuko duten organoak Artezkaritza Kontseilua eta Kudeaketa Batzorde Eragilea dira.

Artezkaritza Kontseilua hauek osatzen dute: Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, presidente gisa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Koordinazio zuzendariak, EUSKALIT Fundazioaren ordezkari batek, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, EUDELEk, CONFEBAS, Euskal Enpresarien Konfederakuntzak, ADEGI Gipuzkoako Enpresarioen Elkarteak, CEBEK Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak eta SEA Arabako Enpresariak .

Artezkaritza Kontseiluaren egitekoak dira urteko Ekintza Plana onartzea Bikain ziurtagiria zabaldu eta inplementatzeko, Kudeaketa Batzorde Eragilea eratu eta egituratzea, aholkuak ematea, hizkuntza-kudeaketaren ebaluazio- eta egiaztapen-ereduaren garapenari eta horrek dakartzan prozedurei dagokienez, eta jarraipena egin eta hobekuntza-jarduerak proposatzea ezarritako egiaztapen-sistema garatzeko..

Kudeaketa Batzorde Eragilea bestalde, hasiera batean Artezkaritza Kontseilua osatzen duten erakundeek eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak osatzen badute ere, hori ez da eragozpena izango aurrerago beste erakunde batzuk ere Kudeaketa Batzorde Eragileko parte izateko.

Kudeaketa Batzorde Eragilearen egitekoak dira: Artezkaritza Kontseiluari laguntze hizkuntza kudeaketaren egiaztapen ereduaren analisi eta etengabeko jarraipena eginen; Bikain ziurtagiriaren



zabalkunde eta inplementaziorako urteko Ekintza Plana lantzea eta Artezkaritza Kontseiluari proposatzea, eta etengabeko hobekuntza-jarduerak proposatzea Artezkaritza Kontseiluari, ezarritako egiaztapen-sistema garatzeko.

Euskara lan munduan sustatzea lehentasunezko jardunbidea da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarentzat. Horregatik, esparru honetako ekimenak bildu eta osatu asmoz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak LanHitz programa-markoa jarri zuen abian 2006an Arabako Foru Aldundiarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, EUDELekin, eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Lan sailekin batera..

Ildo beretik 2006ko irailean lankidetza hitzarmenak sinatu ziren CONFEBASK Euskal Enpresarien Konfederakuntza, ADEGI Gipuzkoako Enpresarioen Elkarte, CEBEK Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa eta SEA Arabako Enpresariak elkarteekin eta ELA, CCOO, LAB eta UGT Euskal Autonomi Erkidegoko sindikatu nagusienekin. Ondoren, 2007ko uztailean Eusko Jaurlaritzak beste lankidetza hitzarmen bat sinatu zuen Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin.

Akordio horietan berariaz jasotzen da Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa enpresetako euskararen erabilera-neurria ebaluatzeko eta aztertzeke sistema sortzeko, gaur egun erabiltzen diren kalitate-eta berrikuntza-parametroak oinarri hartuta.

Bilbon, 2007ko abenduaren 17an



## PRESENTADO EL CERTIFICADO DE CALIDAD EN LA GESTIÓN LINGÜÍSTICA *BIKAIN*, PÚBLICO, OFICIAL Y GRATUITO.

**El Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística *BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria* evaluará y reconocerá la normalización del uso del euskera en el mundo de la empresa y en el ámbito socioeconómico.**

El Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística BIKAIN ha sido presentado esta tarde en Bilbao, en un acto presidido por el Lehendakari Juan José Ibarretxe, y en el que han participado numerosos representantes de las instituciones públicas y del ámbito empresarial vasco.

Bikain, Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística es la primera certificación pública, oficial y gratuita dirigida a certificar y reconocer el grado de normalización del uso, presencia y gestión del euskera en las organizaciones del ámbito socioeconómico de Euskadi. Ha sido promovida por el Gobierno Vasco, las tres Diputaciones Forales, EUDEL, las asociaciones empresariales CONFEBASK, ADEGI, CEBEK y SEA; la Confederación de Cooperativas de Euskadi y la Fundación Vasca para la Calidad Euskalit. Y podrán acogerse a Bikain las entidades que acrediten un nivel mínimo de presencia, uso y gestión del euskera acordes con las condiciones que se establecen en el sistema de evaluación definido.

En el acto de presentación, además del Lehendakari, han intervenido la Consejera de Cultura, Miren Azkarate, el Presidente de Euskalit, Xabier Alkorta y el Presidente de Confebask, Miguel Lazpiur. En la elaboración y en la gestión de este nuevo Certificado de Calidad junto al Gobierno Vasco y la Fundación Vasca para la Calidad Euskalit, participan las tres diputaciones forales, la Asociación de Municipios Vascos, Eudel, las asociaciones empresariales CONFEBASK, ADEGI, CEBEK y SEA y la Confederación de Cooperativas de Euskadi, que también han tenido su representación en el acto.

Asimismo en el evento se ha realizado una mención especial y el merecido reconocimiento a las nueve empresas que han participado en el proyecto piloto para testear el sistema de evaluación, con la entrega de manos del Lehendakari de una talla de madera con la marca del Certificado Bikain inscrita. Las empresas son: Eika, ELAY, Elkargi, Eroski, Euskaltel, CEGASA, Fundación Matia, Goiena, y el Instituto de Máquina Herramienta.

Según ha destacado el Lehendakari Juan José Ibarretxe en su intervención el multilingüismo es “el presente y el futuro” de nuestra sociedad, y el mundo laboral no es ajeno a esta realidad”. Ha añadido que “cuanto más espacio ganemos para el euskera, cuanto más fomentemos la convivencia entre las lenguas, mayor será el nivel de innovación, modernidad y dinamismo en el mundo laboral”. La sociedad vasca camina hacia el bilingüismo y en ese mismo sentido van también encaminadas las empresas que deciden apostar por integrar en su actividad el euskera.



En ese sentido, ha indicado que el euskera no puede ser un elemento “extraño o añadido” en la vida de la empresa, algo que “se asoma por la puerta trasera. Al contrario, debe ser algo propio, natural y consustancial, inherente, a la propia empresa, al negocio de la empresa. Por eso debe insertarse con normalidad y naturalidad sobre la base de los parámetros al uso en la empresa, es decir, sobre la base de los parámetros de calidad e innovación, con programas evaluables”.

A juicio de Ibarretxe, en una sociedad que dispone de dos idiomas y en un mundo multilingüe, “anclarse” en la dinámica monolingüe significa “quedarse atrás”. “Las empresas utilizan más de un idioma, tanto dentro como fuera de la empresa. Es por esto que creemos que las empresas que acogen el euskera con normalidad ganan en competitividad y aventajan a las demás, porque demuestran una capacidad incesante de innovación, dinamismo y modernidad”.

Por su parte la Consejera de Cultura Miren Azkarate ha hecho hincapié en que este certificado de Calidad en la Gestión Lingüística es “público, independiente y gratuito”. Un Certificado que, no obstante, las entidades “tendrán que ganar” y en cuyo sistema de evaluación se establecen tres niveles de certificación según el grado de presencia, uso y gestión del euskera acreditado por la organización: Certificado Básico, Certificado Medio y Certificado Superior.

La Consejera ha recordado que llevan realizado “un largo camino”; desde los años 70 en los que asomaron las primeras iniciativas para acercar el euskera al mundo de la empresa, pasando por el impulso que supuso en los años 90 la estructuración de programas de planificación lingüística en el ámbito sociolaboral, hasta la actualidad en el que es éste un ámbito prioritario en la política lingüística de nuestras instituciones. Sin embargo, a juicio de Azkarate, “no todo sirve, no todo vale, el mejor objetivo puede verse desvalorizado como consecuencia de una gestión, lingüística, inadecuada: hay que evaluar, también lo lingüístico, al igual que cualquier otra actividad en la empresa: para mejorar, para avanzar, para corregir, para adecuar los objetivos y las acciones a las posibilidades y voluntades de las partes afectadas, en definitiva para ganar. Esto es actuar con normalidad”.

“En la actualidad, los jóvenes que han sido euskaldunizados en la escuela y los que han realizado sus estudios en euskera acceden a un mundo laboral en el que la presencia del euskera es todavía mínima o nula”, ha dicho la máxima responsable de Cultura del Gobierno Vasco, para quien eso es algo que “queremos y debemos evitar”. “Deseamos aunar esfuerzos para potenciar el uso del euskera en todos los ámbitos de la sociedad, de manera especial en el mundo laboral. Debemos procurar que aquello que ha euskaldunizado la escuela no se pierda en el mundo del trabajo”.

En ese sentido ha destacado que en la actualidad el 52% de las y los jóvenes que acceden a la Universidad deciden realizar las pruebas de selectividad en euskera. “Esto quiere decir que la mayoría de los que dentro de 15 años dirigirán nuestro pueblo y nuestras empresas serán bilingües. A estas y a estos jóvenes, a estos adultos del futuro, debemos mostrarles que el euskera es una lengua útil para todos los ámbitos de la vida”.



## **BIKAIN: Excelente en euskera**

El Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística *BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria* tiene como objetivo certificar y reconocer el grado de normalización del uso, presencia y gestión del euskera en las organizaciones del ámbito socioeconómico de Euskadi.

Podrán lograr este certificado todas aquellas entidades que acrediten un nivel mínimo de presencia, uso y gestión del euskera acordes con las condiciones que se establecen en el sistema de evaluación definido para tal fin. Las entidades tanto públicas como privadas interesadas en la obtención del certificado podrán solicitar el servicio de evaluación que para este fin ofrecerá de manera gratuita el Gobierno Vasco.

### **Niveles de certificación**

El sistema de evaluación cuenta como elemento básico con el Marco de Referencia Estándar compuesto por los ejes de Comunicación e Imagen Corporativa, Relaciones externas, Relaciones internas y Gestión lingüística. Los tres primeros ejes recogen de manera ordenada el conjunto de elementos en los que se concreta el uso y presencia de un idioma en una organización; el cuarto eje recoge el conjunto de decisiones y estrategias tendentes a incentivar y/o posibilitar el uso y conocimiento del euskera en cada entidad.

Se establecen tres niveles de certificación según el grado de presencia, uso y gestión del euskera acreditado por la organización: Certificado Básico, Certificado Medio y Certificado Superior. Los tres niveles de certificación responden al diferente grado de presencia y uso del euskera constatados en la evaluación, así como del grado de implantación y desarrollo de los criterios lingüísticos adoptados.

Cada uno de los cuatro ejes del Marco de Referencia Estándar cuenta con un peso específico, cuya suma completa una serie de mil puntos. Para la obtención de la certificación correspondiente se tendrá que acumular un mínimo de puntos según lo establecido en el sistema de evaluación.

### **Órganos de gestión del Certificado**

Los órganos que gestionaran este Certificado público y oficial son el Consejo Rector y la Comisión Ejecutiva de Gestión.

El Consejo Rector del Certificado esta formado por el Viceconsejero de Política Lingüística, en calidad de presidente, el director de Coordinación de la Viceconsejería de Política Lingüística, un representante de la Fundación EUSKALIT, en calidad de Vicepresidente, la Diputación Foral de Araba, la Diputación Foral de Bizkaia, la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL), la Confederación Empresarial Vasca (CONFEBASK), la Asociación de Empresarios de Gipuzkoa (ADEGI), la Confederación Empresarial de Bizkaia (CEBEK) y la Sociedad de Empresarios Alaveses (SEA).

Las funciones del Consejo Rector son, por una parte, aprobar el Plan de Acción anual para la difusión e implementación del certificado Bikain, constituir y configurar la Comisión Ejecutiva de



Gestión; asesorar en todo lo concerniente al desarrollo del modelo de evaluación y certificación de la gestión lingüística y los procedimientos que ello conlleva y hacer seguimiento y proponer actuaciones de mejora para el desarrollo del sistema de certificación establecido.

La Comisión Ejecutiva de Gestión, por su parte, está formada por las organizaciones que integran el Consejo Rector y la Confederación de Cooperativas de Euskadi, sin perjuicio de otros organismos que en el futuro puedan formar parte de dicha Comisión Ejecutiva de Gestión.

Las funciones de la Comisión Ejecutiva de Gestión son asistir al Consejo Rector en los procesos de análisis y seguimiento continuado y permanente del modelo de evaluación y certificación de la gestión lingüística; elaborar y proponer al Consejo Rector el Plan de Acción anual para la difusión e implementación del certificado Bikain y proponer al Consejo Rector criterios y actuaciones para la mejora continua del modelo de evaluación y certificación.

La progresiva normalización del uso del euskera en el ámbito socioeconómico es uno de los objetivos estratégicos de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco. Por ello, al objeto de aglutinar e integrar las acciones a desarrollar en este ámbito, la Viceconsejería de Política Lingüística, en colaboración con la Diputación Foral de Araba, la Diputación Foral de Bizkaia, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación de Municipios Vascos EUDEL y de acuerdo con los departamentos de Industria, Comercio y Turismo y de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco puso en marcha en el ejercicio 2006 el programa-marco LanHitz.

En esa misma línea se suscribieron acuerdos de colaboración en el mes de septiembre de 2006 con las organizaciones empresariales vascas, la Confederación Empresarial Vasca (CONFEBASK), la Asociación de Empresarios de Gipuzkoa (ADEGI), la Confederación Empresarial de Bizkaia (CEBEK) y la Sociedad de Empresarios Alaveses (SEA), así como con los sindicatos mayoritarios de la Comunidad Autónoma Vasca, ELA, CCOO, LAB y UGT. Posteriormente, en julio de 2007 el Gobierno Vasco suscribió otro acuerdo de colaboración para el fomento del euskera con la Confederación de Cooperativas de Euskadi.

En dichos acuerdos se recoge expresamente el compromiso del Gobierno Vasco para crear un sistema de evaluación y reconocimiento del uso del euskera en las empresas de acuerdo con parámetros de calidad e innovación.

Bilbao, 17 de diciembre de 2007